

# Indarkeria matxista eta maitasun erromantikoa *Cincuenta Sombras de Grey* eleberrian

Maialen Suarez-Errekalde

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea

Bikote-harremanen baitan gertatzen den indarkeria matxistaren inguruan hausnartzea da artikulu honen helburua. Batik bat, sotilena eta ezkutuen den indarkeria horretan zentratzen da, deigarriena ez izanagatik ere, oso kaltegarria dena eta maiz indarkeria fisikoaren aurrekaria. Egun Mendebaldeko gizarteetan nagusi den maitasun-ereduak (hots, maitasun erromantikoa), genero-rol tradizionalei guztiz lotua dagoenez gero, indarkeria mota honen indartze eta mantenuan funtsezko papera daukala aldeztu da. Hala, bada, gizon-emakumeok daukagun maitatzeko era ezberdina aztertzen da. Horrez gain, balio hauen transmisioan industria kulturalak jokatzeko duten ezinbesteko papera ikusita nahiz *Cincuenta sombras de Grey* eleberriak izan duen arrakastaz ohartuta, azken hori aztertu nahi izan da ikuspegi honetatik, osagai horiek guztiak, hots, indarkeria matxista eta maitasun erromantikoa, barnebiltzen dituen nobela baita.

GAKO-HITZAK: Maitasun erromantikoa · Indarkeria matxista · *Cincuenta sombras de Grey* · Genero-rolak · Erresistentzia · Subertsioa.

## Sexist violence and romantic love in the novel *Fifty Shades of Grey*

The aim of this article is to think about the sexist violence that happens in intimate relationships. The article focuses on the most subtle and hidden violence, because even if it is not the most striking one, this kind of violence is really harmful and often a physical violence's precursor. The article supports the idea that the dominant love model in western societies nowadays (romantic love), has a key role in the maintenance and defense of this type of violence, as it is a love model that is totally connected to traditional gender roles. Due to the paramount importance cultural industries have in the transmission of these values, and also being aware of the great success that the novel *Fifty shades of Grey* has achieved, this novel has been analyzed from this point of view, since it is considered it involves both romantic love and sexist violence.

KEY WORDS: Romantic love · Sexist violence · *Fifty shades of Grey* · Gender roles · Resistance · Subversion.

*Jasotze data:* 2016-02-18    *Onartze data:* 2016-03-20

## Sarrera

Artikuluak hizpide duen gaia bikote-harremanen baitan gertatzen den indarkeria matxista da, bereziki, ezkutuko indarkeria deitzen zaion hori. Deigarriena ez izanagatik ere, askotan larriena eta ohikoena da (maiz indarkeria fisikora eramaten duena), baina oharkabean igartzeko gaitasun handiagoa dauka, behatzen duenarentzat ez ezik, pairatzen duenarentzat ere. Orrialdeotan, maitasun erromantikoaren ereduak indarkeria mota horrekin daukan zerikusiaz hausnartzen da, baita *Cincuenta sombras de Grey* eleberrian elementu horiek guztiak nola nahasten diren aztertzen ere. Izan ere, duen gaurkotasuna ikusita eta mota horretako liburuek gizartean duten arrakasta nahiz eragina kontuan izanik, oso garrantzitsutzat jotzen da honelako azterlanak burutzea.

Bost atal nagusi aurki daitezke. Lehenak, genero-rol tradizionalari egiten die erreferentzia, zer diren eta nola barneratzen diren azalduz, eta gizon-emakumeen maitatzeko eran duten eragina adieraziz. Bigarren atalak, ostera, bikote-harremanen baitako indarkeria lantzen du, eta haren barnean, maitasun erromantikoaren eredia eta mitoak azaltzen dira, baita zeloak eta kontrola, eta mikromatxismoak ere. Hurrengo atalean, literaturak balio patriarkalekin duen loturaren hainbat adibide eskaintzen dira. Laugarren atala *Cincuenta Sombras de Grey* liburuaren analisiari dagokio, eta, bertan, maitasun erromantikoa eta indarkeria matxista liburuan zehar nola azaltzen diren aztertzen da. Azkenik, bosgarren atalean ondorioak jasotzen dira, artikuluan zehar lantzen diren ideia nagusiak laburbiltzen dituztenak.

### 1. Genero-rol tradizionalak

Normalean, *genero* kontzeptuaren azalpena *sexu* kontzeptuari kontrajarrita azaldu ohi da. Bi termino horiek sarritan nahasten badira ere, sexuarekin gizon-emakumeen arteko ezberdintasun biologikoei egiten zaie erreferentzia, eta generoarekin, aldiz, oinarri biologiko horren gainean eraikitako ezberdintasun soziokulturalei (Espinar, 2007: 25). Generoa, beraz, ez da kategoria natural bat, eta gizarte eta garai ezberdinen arabera aldatu egiten da, jendarte bakoitzak gizon eta emakumeei organo sexualen arabera ezartzen dizkien ezaugarri ezberdinek osatzen baitute. Modu honetan, bi genero kontrajarri baina osagarri eratzen dira: batetik, gizonei loturiko genero maskulinoa; eta, bestetik, emakumeei dagokien genero femeninoa (Andrés, 2004: 24)<sup>1</sup>. Genero-rolak gizarteak genero bakoitzarengandik espero dituen eta egokitzat dituen portaeren, jarrerren, sinesmenen eta balio sozialen multzoa dira, bakoitzari funtzio (edo rol) konkretu bat ezartzen baitzaio bizitzan (Andrés, 2004: 24; Espinar, 2007: 16).

---

1. Azken korrante feministen arabera, generoen (baita sexuen) banaketa dikotomiko hori zaharkitua geratu da. Judith Butler edo Anne Fausto-Sterling bezalako egileek (beste zenbaiten artean), bi baino genero eta sexu gehiago daudela baieztatzen dute. Hori ahaztu barik, bi polo kontrajarritan (gizona/emakumea eta maskulinoa/femeninoa) oinarritzen den sexu-genero sistema tradizionala oso baliagarria da oraindik analisi-tresna gisa eta lan honetan zehar erabiltzeko, ez baita lan honen helburua generoarean inguruko hausnarketa eta konplexutasunetan murgiltzea.

Baina zenbait egilek gogorarazten diguten legez (Andrés, 2014; Espinar, 2007; Guardo, 2012; Ferrer eta Bosch, 2013), gizarte patriarkal batean bizi garen heinean<sup>2</sup>, genero-rolak hierarkikoki eraikitzen dira, balio maskulinoak nagusi izanik: gizonezkoak alor produktiboan nahiz publikoan arrakasta izateko hezten dira, eta, ondorioz, botere ekonomiko, sozial eta sexual guztia beren gain izateko; afektuen mundua ukatzen zaie, eta gizaki autonomo, burujabe, eta aske izateko prestatzen dira. Finean, maskulinitatearen aginduek feminitatearen aginduetatik ahalik eta gehien urruntzea suposatzen dute, Andrés-ek ondo adierazten duen gisan:

De la mujer se espera que desarrolle el rol de esposa y madre, cultivando actitudes de cuidado, presencia y entrega como expresión amorosa y relacional. Sus funciones fundamentales y obligatorias son las reproductoras, cuidadoras, educadoras, sanadoras de la familia y se llevarán a cabo en el espacio doméstico. El desarrollo de estas funciones implica la dependencia económica, social y sexual del varón, así como la falta de individualidad (2004: 31).

Argi dago genero-rolak eta horien inguruko sinesmen zein estereotipoak zailtasun handi bat direla berdintasuneranzko bidean. Puntu honetara heldurik, ezin aipatu gabe utzi ideia horiek guztiak primeran bezain labur jasotzen dituen *El segundo sexo* liburuko esaldi entzutetsua: «No se nace mujer: se llega a serlo. Ningún destino biológico, psíquico o económico define la imagen que reviste en el seno de la sociedad la hembra humana; es el conjunto de la civilización el que elabora ese producto intermedio entre el macho y el castrado al que se califica de femenino» (De Beauvoir, 2000: 13). Hala ere, pertsonak, oro har, genero-aginduekin bat egiten saiatzen gara, maskulinitate eta feminitate normatiboetara ahalik eta gehien hurbildu nahian. Izan ere, jendartearen onartuak diren generoak euren sexuarekin harreman koherente bat mantentzen duten horiek dira, osterantzean pairatzen den zigor soziala oso gogorra delarik (Butler, 2009).

Genero-rolak norbere autokontzeptuari erantsiz, genero-nortasuna osatzen da. Barneratze-prozesu horri sozializazio esaten zaio, Lucas-ek (1996: 99), honela definitzen duena: «Proceso por el que un individuo se hace miembro funcional de una comunidad, asimilando la cultura que le es propia». Baina hainbat egilek (Bosch *et al.*, 2007; Espinar, 2007; Ferrer eta Bosch, 2013) ondo azaltzen duten gisan, sozializazio diferentziala deitzen denaren bidez prozesu horretan generoarekin zerikusia duten itxaropen, arau edota rola nabarmentzen dira, eta gizon-emakumeek sozializazio-eragile ezberdinen bitartez jasotzen dituzten mezuak ezberdinak dira sexu batean edo bestean jaio izanagatik soilik.

Sozializazioa bizitza osoan zehar gertatzen den prozesua bada ere, genero-rolak barneratzeko unean testuinguru sozial hurbilena (batik bat, familia) bereziki garrantzitsua da, eta, hortaz, haren efektuek eragin handiagoa dute haurtzaroen, non genero-nortasunaren oinarritzko elementuak eskuratzen eta garatzen diren imitazio- eta identifikazio-mekanismoen bitartez. Bigarren mailako sozializazioan

---

2. Marcela Lagarde-ren hitzetan, honakoa da patriarkatua: «El patriarcado es un orden social genérico de poder, basado en un modo de dominación cuyo paradigma es el hombre. Este orden asegura la supremacía de los hombres y de lo masculino sobre la inferiorización previa de las mujeres y lo femenino. Es asimismo un orden de dominio de unos hombres sobre otros y de enajenación de las mujeres» (1996: 52).

(eskola, komunikabideak, berdinen taldea), aurrez barneratutako rol eta nortasun horien zilegiztatzea nahiz finkatzea (edota errefuxatzea, zenbait kasutan) gertatzen da (Andrés, 2004; Espinar, 2007; Guardo, 2012).

Sozializazio-prozesuan egokia denaren inguruan transmititzen eta barneratzen diren eduki horiek maitasun-harremanetan ere eragina dute; prozesu horretan zehar maitemintzea zer den, zer sentimendu sortzen dituen, nor maita dezakegun eta nor ez, erakargarria zein den eta abar ikasten da. (Bosch *et al.*, 2007; Riviere, 2009; Ferrer eta Bosch, 2013; Herrera, 2013). Sistema patriarkala da sentimendu eta harreman afektiboak eraiki eta moldatzen dituena. Ondorioz, genero-nortasunak funtsezko zeregina betetzen du eraikuntza horretan, gizon-emakumeen maitatzeko eta sentitzeko eretan desberdintasunak iraunaraziz (Riviere, 2009: 14; Herrera, 2013).

Maitasunak eta beronekin loturiko mito eta sinesmenek garrantzi berezia hartzen dute emakumeen sozializazioan, euren bizitza-proiektuetan maitemintzea, bikote-harreman bat osatzea, ezkontza eta zaintza, lehentasuna izaten direlarik sarri askotan. Gizonezkoen kasuan, aldiz, maitasuna garrantzitsua izanagatik ere, bigarren maila batean geratu ohi da, arrakasta gehiago baitatorkie aitorten sozialetik maitasunetik eta familiatik baino. Bikoterik ez izatea ez da (emakumezkoekin gertatzen den bezala) horrenbeste lotzen porrot pertsonalarekin (Ferrer eta Bosch, 2013). Ideia horietatik zera eratortzen da: gizonezkoen maitasun-sozializazioan, autonomia, askatasuna bai eta dominazioa ere sustatzen direla. Eta maitasunaren sozializazio femeninoari dagokionez, bikote-harremanen eraikitzea eta mantenua ezinbestekoak direla emakumeek biziraupena bermatu eta zorientasuna erdiesteko. Maitasunaren sozializazio guztiz dependentea da, zaintzan eta gainerakoei ematean oinarritzen dena (Riviere, 2009).

## 2. Bikote-harremanak eta indarkeria matxista

Indarkeria matxista kultura eta jendarte guztietan gertatzen den Giza Eskubideen urratze larria da (Guardo, 2012: 42)<sup>3</sup>. Duela gutxira arte fenomeno pribatutzat hartzen zen arren, azken urteotan dimentsio publikoa hartu du, arazo sozial gisa ulertu den arte. Aldaketa horrek indarkeria mota hori azaltzeko modu berri bat ekarri du: arazo indibidual gisa, egoera partikular baten ondorioz gertatzen zela uste zen (egoera ekonomikoa, droga-menpekotasuna, alkoholismoa, gaixotasun mentala...); arazo sozial bezala, aldiz, indarkeria matxistaren kausa generoen arteko botere-harremanean bilatu behar da, hots, ezberdintasunean oinarrituriko harreman sozialetan, non menperatzaileak (gizonak) eta menperatuak (emakumeak) dauden (Bosch, Ferrer eta Alzamora, 2006).

---

3. Lan honetan zehar «indarkeria matxista» terminoa, emakumea izate hutsagatik emakumeen aurka ematen den indarkeria adierazteko erabiltzen da, bere forma guztietan. Badaude «genero-indarkeria», «indarkeria sexista» edota «indarkeria domestikoa» bezalako terminoak darabiltzatenak ere, baina denek euren muga semantikoak izan badituzte (eta gainera, legediek esanahi jakin bat ematen diete horietako bakoitzari). Horretaz gain, badaude hainbat kolektibo indarkeria mota hau jasan arren, «emakumeen aurkako indarkeria» kontzeptuaren barnean sartzen ez direnak. Hori guztia dela-eta, «indarkeria matxista» kontsideratzen da indarkeria mota honen ezaugarriak eta izaera hoberen adierazten dituen terminoa.

Nazio Batuen Erakundea [NBE] (1994) izan zen arazo horren inguruan lehen nazioarteko deklarazioa egin zuen organismoa, hain zuzen ere, *Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer*. Horren arabera, honakoa da indarkeria matxista (kasu honetan, «emakumearen aurkako indarkeria» deitua) (Batzar Nagusiaren 48/104 Erabakia, NBE, 1994):

#### Artículo 1

A los efectos de la presente Declaración, por «violencia contra la mujer» se entiende todo acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la vida privada.

Dena den, lan honetan interesatzen zaiguna, bikote-harremanen baitan jazotzen den indarkeria matxista da. Beste hamaika esparrutan ere jazotzen den arren, gizartean sona handiena hartu duena senarrak, bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzaturiko indarkeria fisiko, psikologiko edo sexuala da, haren muturreko adierazlea beren bikotekideen esku hil diren emakumeen kopurua izanik: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad [MSSSI] delakoaren arabera, 2015. urtean 59 izan ziren beren bikotekide edo bikotekide ohiak hil zituzten emakumeak Espainiako Estatuan, eta 2016ko otsailean dagoeneko, 9 biktima zenbatu dira<sup>4</sup>.

Baina zifrak alde batera utzita, emakume gehienek pairatzen dituzten tratatu txarrak ez dira fisikoak (Nogueiras, 2004: 40). Indarkeria-adierazle ikusgarrienak dira, baina ez dute zertan beti larrienak izan. Aitzitik, bikote-harreman batean indarkeria mota oro edo horietakoren bat soilik gerta daiteke, jarraian aipatzen direnak (Nogueiras, 2004: 41):

- *Indarkeria fisikoa*: gorputzeko min, kalte edo traumatismoak eragiten ditu intentsitate ezberdineko kolpeen bitartez, eta horiek eskuekin, armekin edo beste mota bateko tresnekin eragin daitezke.
- *Indarkeria sexuala*: desio ez diren harreman sexualen, jarreraren, janzkeraren eta abarren inposizioa, bai eta indarkeria fisiko bidezko abusu edota bortxaketa ere.
- *Indarkeria psikologikoa*: irainak, gutxiespenak, isekak, hertsadura eta kritika etengabeak, utzikeria eta isolamendu emozionala, inkomunikazioa, oihuak, xantaiak, mota guztietako mehatxuak, kontrola...
- *Indarkeria soziala*: biktima bere inguru sozialetik (adiskideak, familia...) aldentuta mantentzea.
- *Inguruneko indarkeria*: objektuak hautsi, hondatu, jo eta botatzea.
- *Indarkeria ekonomikoa*: diruaren gaineko kontrola, irismena, erabilera galaraztea, baita egoera ekonomikoaren berri ez ematea ere; diru-iturri propioak moztea (esaterako, enplegu bat izatea ekidinez) eta egindako gastuen azalpenak eskatzea.

---

4. MSSSI. *Datos estadísticos de violencia de género*. <<http://www.msssi.gob.es/ssi/violenciaGenero/datosEstadisticos/home.htm>>.

Jarraian bikote-harremanen baitan indarkeriaren sustatzaile edo adierazle diren hainbat elementuren inguruan hitz egingo da. Hain zuzen ere, indarkeria estalia edo ezkutua deitzen den hori, askotan kaltegarriena izan daitekeena baina era berean, apenas inor ohartu gabe gertatu, transmititu eta barneratzen dena.

## 2.1. Maitasun erromantikoaren ereduak

Aurreko atalean adierazi den bezala, gizon-emakumeek sozializazio ezberdina jasotzen dute baita maitasunean ere. Hala ere, ez da ahaztu behar sozializazio hori maitasun-eredu konkretu baten inguruan gauzatzen dela, maitasun erromantikoaren inguruan alegia. Amodio mota hori kulturalki onartzen diren mito batzuen gainean eraikitzen da, eta, oro har, maitasun erromantikoaren ezaugarri nagusia bikote-maitasun idealtzat onartua egotea da. Idealizatua daukagun pertsona batengatik edozer egitea esan nahi du, maitasunaren izenean edozein sakrifizio egitea. Maitasun horrek gainditu beharreko zailtasunak ugariak izan ohi dira, eta bidea sufrimenduz betea egoten da. Hala ere, sentitzen dena benetako maitasuna bada, zailtasun oro gainditzeko gai den bizi osoko amodioa dela sinesten da, eta igarotako sufrimendu guztia maitasun-froga ere kontsideratzen da. Pasioz beteriko maitasuna da, magikoa, irrazionala eta aurreranezina eta menderaezina (Guardo, 2012), marku afektibo-sexual onargarri bakartzat heterosexualitatea hartuta (Esteban, 2011: 48; Ferrer eta Bosch, 2013: 114).

Maitasunaren ideia horri leial izateko, emakumeek genero-mandatu hauei jarraitu behar diete besteak beste: bikotekideari gorputz eta ariman ematea; bikotekidea norbere bizitzaren ardatz gisa ipintzea eta haren zorientasuna eta beharrianak guztiaren gaindi jartzea; bikotekidearekiko dependentzia garatzea eta norbere beharrianak bigarren maila batean uztea; muturreko zorientasun- edo sufrimendu-esperientziak bizitzea; maitasunaren izenean dena barkatu eta zuzenestea; bikotekidearen abandonu posible bati beldur izatea; edozein sakrifizio nahikoa ez dela pentsatzea bestearekiko maitasunagatik egiten denean; beste pertsonaren interesean edo maitasunean eman daitekeen edozein gorabeherari adi egotea; etab. (Ferreira, 1995, hemen aipatua: Bosch *et al.*, 2007: 27-28; Deza, 2012: 48). Maitasunak pasibotasunarekin, zaintzarekin, entregarekin, uko egitearekin, sakrifizioarekin, sufrimenduarekin... harremana duela irakasten zaie emakumeei, baita hainbat portaera normaltzat hartzen eta onartzen ere. Gizonezkoentzat, aldiz, maitasunak zerikusi gehiago dauka heroia eta konkistatzailea izatearekin, arauak haustearekin, zailtasunak gainditzearekin, babesa ematearekin, salbatzaile-irudiarekin, eta, finean, menperatzen duena eta jasotzen duena izatearekin.

Riviere-k (2009) eta Esteban-ek (2010) gogorarazten digutenez, maitasun erromantikoaren ereduak berdintasunean oinarrituriko bikote-harremanak erabat zapuzten ditu, genero-rol tradizionalak gogor indartuz eta gizartean oraino dagoen gizon-emakumeen arteko parekidetasunik ezean sakonduz. Nahiz eta normalean amodioaz modu honetan hitz egiten ez den eta ideologia kultural zehatz honen amarrua preseski maitasun, sexu, klase, etnia... eta tankerako edozein bereizketatilik at dagoen sentimendu goren gisa kokatzea den.

## 2.2. Mito erromantikoak

Mito bat sinesmen bat besterik ez da, hori bai, egia absolutua bailitzan formulatzen den sinesmen bat (Guardo, 2012: 48). Maitasun erromantikoaren mitoak ustezko benetako maitasunak nolakoa izan behar duen adierazten duten ideia eta sinesmenak dira, eta beste esparru batzuetan gertatu ohi den legez, irrazionalak, faltsuak, zentzugabeak, engainagarriak eta betetzen ezinezkoak dira (Yela, 2003, hemen aipatua: Ferrer eta Bosch, 2013: 113). Hala ere, gizartearen zati handi batek bere egiten ditu. Mito horiek emakumeengan eragin nabarmenagoa dute maitasunak euren heziketan oraindik daukan garrantzia dela-eta, eta horiek barneratzeak indarkeria-harreman batetik ateratzea zaildu dezake.

Bosch, Ferrer eta Navarro-ren (2010: 7-10), eta Herrera-ren (2013: 294-295) arabera, jarraian zerrendatzen direnak dira mito erromantikoak:

- «*Eta zoriontsu bizi izan ziren betiko*» *mitoa*<sup>5</sup>. Esaldi hori da maitasun erromantikoaren mito nagusia. Zailtasun guztiak gainditu ostean, azkenean bere maitasuna bakean bizi dezakeen bikote zoriontsuaren ideia adierazten du, eta inplizituki, «benetako maitasunezko» istorio orok horrela amaitu behar duela esan nahi du, bizi dena benetako maitasuna bada.
- *Printze urdinaren eta printzesaren mitoa*. Aurreko mitoari estuki lotua, printzea eta printzesa genero-rolen banaketa gogor eta estereotipatu batean eraikitzen dira: printzea salbatzailea da, indartsua, adorez betea, dominatzailea. Printzesa, berriz, beldurtia da, zaurkorra, ezta eta esanekoa. Mendetasun-eredu idealizatua aurkezteak emakume askok rol tradizional hori gogoz onartzea eragin dezake.
- *Laranja erdiaren mitoa*. Pertsona bakoitzarentzat bikotekide predestinatu bat existitzen den sinesmena, aukera posible guztien artean onena edota bakarra dena. Hura gabe, pertsonak ez dira osotasunera iristen, bikotekide ideal horrek ekarriko dien erdia behar baitute izaki oso izateko.
- *Bikotearen mitoa*. Bikote heterosexuala naturaltzat eta unibertsaltzat hartzea, monogamia leku eta garai guztietan presente egon den ezaugarria dela sinetsiz. Mito horri jarraikiz, bikoteka bizitzearen normaltasuna eta egokitasuna guztiz ezarri da iruditegi kolektiboan, baita gizartean ezkontza-errituaren bitartez instituzionalizatu ere.
- *Esklusibotasunaren mitoa*. Bi pertsonaz edo gehiagok aldi berean maiteminduta egotea ezinezkoa dela berresten duen ideia. Mito hori oso indartsua da, eta jabetza pribatuarekin eta norberekeriarekin zerikusia dauka, pertsonak eta euren gorputzak ondasunak bailiran ikusten ditu eta.
- *Fideltasunaren mitoa*. Desira sexual, erromantiko eta erotiko guztiak pertsona bakarrarekin (bikotekidearekin) ase behar direla sinestean datza, mantentzen dena benetako maitasuna izango bada.
- *Jeloskortasunaren edo zeloaren mitoa*. Jeloskor egotea maitasun-froga dela pentsatzea, baita benetako maitasunaren ezinbesteko eskakizuna ere.

---

5. Gaztelaniazko «*y vivieron felices, y comieron perdices*» famatua.

- *Baliokidetasunaren mitoa*. Maitasuna (sentimendu bat dena) eta maitemina (iraupen jakin bat duen egoera) gauza bera direla sinestea.
- *Ahalguztiduntasunaren mitoa*. «Maitasunak guztiarekin ahal duela» uste izatea dakar, eta benetako maitasuna nahikoa dela arazo oro gainditzeko zein jarrera oro bidezkozteko.
- *Aukeramen librearen mitoa*. Maitasun-sentimenduak guztiz intimoak eta faktore sozio-biologiko-kulturalek eragin gabeak direla sinestea.
- *Ezkontzaren edo elkarbizitzaren mitoa*. Maitasun erromantikoak, halabeharrez, bikotearen lotura egonkorra ekarri behar duen ustea, ezkontzan egikarituko dena. Mito honek XIX. mendearen amaieran du jatorria; historian lehenengo aldiz, maitasuna arautu egiten da eta ezkontzak komenentziaz hitzartua izateari uzten dio, eta, gainera, behar sexualak ezkontzaren barnean asetu behar diren ustea ere hedatzen da.
- *Betiereco pasioaren mitoa*. Lehen hilabeteetako maitasun erromantiko eta sutsuak denboran iraun behar duela sinestean datza.

Biztanleria espainiarrak mito erromantikoekiko duen onarpen mailari buruzko ikerketa batek frogatzen duenez, onarpen-maila altua dute, batik bat «betiereko pasioaren mitoak», «laranja erdiaren mitoak», «ahalguztiduntasunaren mitoak» eta «ezkontzaren mitoak», «bikotearen mitoa», berriz, onartzen ez den bitartean:

1. taula. Mito erromantikoekiko adostasun-maila.

ITEMA <sup>6</sup>	EZ-ADOS	AXOLARIK EZ	ADOS	EZ DAKI EDO EZ DU ERANTZUN
1)Nonbaiten pertsona bakoitzarentzat predestinaturiko pertsona dago, «laranja erdia».	% 31,8	% 12,7	% <b>52,6</b>	% 2,9
2)Bikote-harremanetako hasierako pasioak betirako iraun behar luke.	% 18,8	% 5,8	% <b>72,3</b>	% 3,1
3)Maitasuna itsua da.	% 27,5	% 8,5	% <b>60,7</b>	% 3,3
4)Benetako maitasunak zailtasun guztiak gainditzen ditu.	% 17	% 6,8	% <b>73,1</b>	% 3,1
5)Ezkontzak maitasunaren heriotza dakar (alderantzizko itema).	% <b>71,3</b>	% 10,8	% 14,7	% 3,2
6)Zorionsua izan daiteke bikote-harremanik gabe (alderantzizko itema).	% 18,3	% 10	% <b>68,4</b>	% 3,3
7)Banantzea edo diborziatzea porrot bat da.	% <b>54,2</b>	% 9,3	% 33,4	% 3,1

**Iturria:** Egileak osatua (Bosch, Ferrer eta Navarro, 2010: 16) lanetik abiatuta.

6. Hirugarren eta laugarren itemak «ahalguztiduntasunaren mitoa»ri dagozkio. Seigarren eta zazpigarren itemak, berriz, «bikotearen mitoa»ri.



Gazte andaluzekin egindako ikerketa baten emaitzek datuak sexuka banatuta eskaintzen dituzte (Peña *et al.*, 2011: 41-47): mutilen % 56,9k eta nesken % 50,9k bat egiten dute maitasunaren «ahalgutziduntasunaren mitoa»rekin; nesken % 74,8k eta mutilen % 68,2k maite zaituen pertsona batek sufriaraz diezazukeela uste dute; nesken % 81,7k eta mutilen % 68,6k maitasunagatik edozer barka daitekeela pentsatzen dute (azken bi ideiak oso arriskutsuak dira, indarkeriazko jarrerak eta beste portaera onartezin batzuk zilegiztatzen baitituzte; adierazgarria da emakumezkoen portzentajeak altuagoak izatea azken kasuotan); «laranja erdiaren mitoa» mutilen % 65,7k eta nesken % 71,3k sinesten dute, eta «ezkontzaren mitoa»rekin azkenik, nesken % 54 eta mutilen % 62,7 daude ados. Neskek, oro har, barneratuagoak dauzkate mito erromantikoak (datuak nahiko antzekoak diren arren), eta hain juxtu, indarkeria matxistari lotuen dauden mitoak dira neskek gehien onartzen dituztenak.

### 2.3. Zeloak eta kontrola

Jeloskortasuna esperientzia emozional konplexu eta negatibo bat da, beldurrak, amorrak eta tristurak osatua. Hirugarren pertsona baten erruz, harreman baliotsu bat galtzeko edo hondatzeko arriskuaren aurrean agertzen da, mehatxua benetakoa edo irudikatutakoa izanda ere (Bosch *et al.*, 2007: 31). Baina horrez gain, maitasun erromantikoaren funtsezko osagai gisa ere agertzen dira zeloak, eta kasu batzuetan jeloskor ez egotea maitasun faltarekin lotzera iristen da (Riviere, 2009).

Zeloak amodioarekin lotzea arazo larri bat da, sentimenduen esparrura igortzen baitu boterea zein dominazioa ezartzeko molde bat dena, azken batean, kontrol-estrategia bilakatuz (janzeraren, espazioaren erabileraren, harremanen... gaineko kontrola). Horren ondorioetako bat autonomia eta erabakitze askatasuna galtzea da. Jarrera norberekoi, bidegabe, eta zapaltzaileak zuzenesteko erabil daiteke, baita zenbait kasutan, indarkeriazko portaerak bidezkoetako ere (Bosch *et al.*, 2007, 2010).

Jeloskortasunaren mitoak gazteen artean dago hedatuen: Bosch *et al.*-en (2010: 399) ikerketak frogatzen du (non batez besteko adina 48,23 urtekoa den) elkarrizketatutako pertsonen % 70 ez dagoela ados mito horrekin. Aitzitik, gazte andaluzekin egindako ikerketaren (Peña, *et al.*, 2011: 48) arabera, mutilen % 61,2 eta nesken % 41,7 ados daude zeloak maitasun-froga direlako sinesmenarekin. Kasu honetan ere atentzioa ematen du kontrol-jarrerekin horren lotua dagoen jeloskortasunaren mitoak gizonetakoengan edukitzea onarpen gehien.

### 2.4. Mikromatxismoak

*Mikromatxismo* kontzeptua Luis Bonino psikologoak proposatu zuen. Neologismo horrekin, emakumeen autonomiaren aurka egunerokotasunean gauzatzen diren kontrol-estrategia eta *mikroindarkeriei* egiten zaie erreferentzia. Portaera horiek ikusezinak izan ohi dira, edota testuinguru sozialak erabat zilegiztaturikoak. Hori dela-eta, oso eraginkorrak dira. Dominazio forma «leunak» dira, zenbaitetan elkarrekintza natural ere diruditenak, baina denboran zehar errepikatzearen eta metatzearen poderioz kalte handia egin dezaketenak; indarkeria fisikoaren moldeetatik asko

urruntzen badira ere, epe luzera horren helburu eta efektu berberak dauzkate: emakumearen gaineko kontrola bermatzea eta emakumeentzat bidegabea den eskubide eta aukeren banaketa mantentzea.

Boninok (1995) mikromatxismoen tipologia bat osatu zuen hiru talde nagusitan sailkatuz: mikromatxismo hertsatzaileak, ezkutuko mikromatxismoak eta krisi-garaiko mikromatxismoak. Azken horiek emakumearen boterea igotzen denean erabiltzen direnak dira. Gizonak bere posizioa mehatxatua ikusten duelako erabiltzen ditu, *statu quo*-a berrezartzeko.

**2. taula. Mikromatxismoen sailkapena.**

MIKROMATXISMO ERABILGARRIAK	Etxeko lanen ardurarik ez hartzea.	Inplikazio eza.
		Seudoinplikazioa.
		Onurazko inplikazioa.
	Zerbitzurako gaitasun «femenino»-en abusua eta profitatzea.	Zaintzaile-rolaren naturalizazioa eta profitatzea.
		Senarrari «laguntza» ematearen naturalizazioa eta profitatzea.
		Aita-adiskidekeria.
EZKUTUKO MIKROMATXISMOAK	Intimidade falta sortzea.	Isiltasuna.
		Isolamendu eta umore txar manipulatzaila.
		Mugen ezarpena.
		Beste pertsona batzuen inbasioa.
	Seudointimitatea eta seudokomunikazioa.	Babes-eraso komunikazioa.
		Engainu eta gezurrak.
		Seudonegoziazioa.
	Balioa kentzea (desautorizazioa).	Gutxiespena.
		Positibo ukatzea.
		Mikroterrorismo misoginoa.
	Paternalismoa.	
	Manipulazio emozionala.	
	Inozentizazioak.	Ez ikusiarena (eta onarena) egitea.
		Trebetasun falta eta ahazte selektiboak.
		Norbere akatsei garrantzia kentzea.
		Errua beti kanpo-faktoreei egoztea.

MIKROMATXISMO HERTSATZAILEAK	Komunikatzera derrigortzea.
	Intimidazioa.
	Diruaren kontrola.
	Norberarentzako espazioaren eta denboraren gehiegizko erabilera.
	Gehiegizko insistentzia.
	Intimitatearen inposaketa.
	Gizonezkoen «nagusitasun» logikoari apelazioak egitea.
	Agintearen bat-bateko hartze eta abandonuak.
KRISI-GARAIKO MIKROMATXISMOAK	Hiperkontrola.
	Seudobabesa.
	Erresistentzia pasiboa eta urruntzea.
	Negoiazioa eta kritika saihestea.
	Merituak egin eta hitzmatea.
	Biktimismoa.
	Pena ematea.

**Iturria:** Norberak egina Bonino (2004: 98-100) lanetik abiatuta.

Geroago (2004), aurrez aipaturiko hirurei kategorია bat gehiago gehitu zien Boninok: *mikromatxismo erabilgarrien* taldea; ez-egite bidezko jukutriak dira, eta haien eraginkortasuna, beraz, ez dator egiten denaren ondorioz, egiten ez denaren kausaz baizik. Gizon-emakumeen artean onartuen eta naturalizatuen dauden mikromatxismoak dira, baita bikoteen arteko botere-banaketa bidegabearen mantenuan gehien laguntzen dutenak ere, emakumeei egozten zaizkien eta eurek bere egiten dituzten genero-aginduen gehiegizko profitatzea suposatzen dutenez gero.

### 3. Indarkeria matxista eta maitasun erromantikoa literaturan

Historian zehar, literatura bera balio patriarkalen aliatu fina izan da, ideologia hori eraikitzen, transmititzen nahiz naturalizatzen izan duen funtsezko paperagatik, maitasunari zein emakumeen rolari dagokienez (Cerezo, 2010). Testuinguru espainiarrari gagozkiola, 1140. urteko *Poema de Mio Cid* laudatuan, Carrión-go kondeek beren emazteak jipoitu eta hiltzen ditzute (Servén, 2012: 113). Kate Millet-ek *Política Sexual* liburu entzutetsuan XX. mendeko literaturagile ospetsuenen (D.H. Lawrence, Mailer eta Henry Miller-en) hainbat nobelaren eduki patriarkala azaleratu zuen. Marina López-en nobela beltzaren inguruko azterketak (2014) azaltzen duenez, literatur lanak ikuspegi androzentriko eta misogino batez idatzi izan dira oro har, gizonezkoen desiraren irudikapen unibertsalari erantzunez. Genero-rol eta -estereotipoak indartzeko erabili den beste bide bat haur-literatura da, printze urdin salbatzailez, printzesa ahul esanekoz, amaorde ankerrez... betea (Pastor, 2009-2010). Literatura garaikidean ere maitasun erromantikoa eta indarkeria iraunarazten dituzten adibide asko aurki daitezke, deigarrienak gazte-literaturari dagozkionak, hala nola *Crepúsculo* saga, Federico Moccia-ren eta Nicholas Sparks-en nobelak, edota argitaratu berri den *After* liburua. *Cincuenta sombras de Grey* adibide bat

bestarik ez da, baina izan duen arrakasta eta eraginagatik fenomeno soziologiko bilakatu da (Izquierdo *et al.*, 2013: 432).

Literaturak eta beste industria kulturalak, beraz, etengabe saltzen dute maitasun erromantikoaren mitoa nahiz indarkeria matxista euren produktuetan, eta literaturan, musikan edota zineman presentzia iraunkorra izateak ordena sozial patriarkala elikatzen jarraitzeko baino ez du balio belaunaldi berriei indarrez helaraziz eta normalizatuz, emozioak kulturaren ikasten baitira kontakizun eta mitoen bitartez (Bosch *et al.*, 2007; Bonomi, Altenburg eta Walton, 2013; Izquierdo *et al.*, 2013).

#### **4. *Cincuenta Sombras de Grey* eleberriaren analisia**

*Cincuenta Sombras de Grey* eleberri erotikoa, E.L. James idazle britainiarraren eskutik argitaratu zen 2011. urtean. Haren arrakasta ikaragarria izan zen, *best seller* bilakatu zelarik munduko zerrenda guztietan, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan barne. Trilogia baten lehenengo zatia da, 2012. urterako mundu osoan zehar berrogei milioi ale inguru saltzea lortu zuen trilogia baten parte, eta lehen zati hau hain juxtu, historian azkarren saldu den liburua da. Argitalpen modernoaren historian hoberen saldu diren sei liburu-sailen artean kokatu da, eta trilogiaren itzulpen-eskubideak hogeita hamazazpi herrialdetan saldu dira (Illouz, 2014: 17). Laugarren atal honen xedea hau da: nobelak artikuluan zehar landu diren gaiekin lotura zuzena daukala agerian uztea, erromantizismo faltsuz mozorrotu baitu indarkeria latza dena.

##### **4.1. Metodologia**

Metodologiari dagokionez, diskurtsoaren analisi kritikoa erabili da eleberria aztertzeko. Izan ere, generoen arteko botere-harreman desorekatua eta dominazioa diskurtso idatziaren bitartez nola zilegiztatzen eta ezartzen diren ikusi nahi izan da. Gizarte-zientzien alorrean sona handia hartzen ari den tresna kualitatiboa da, gizartean dauden diskurtsoak interpretatzean datzana. Diskurtso horiek ez dira soilik linguistikoak, euskarri ezberdinetan egon daitezke (irudiak, liburuak, ikus-entzunezkoak...) eta jakintza-alor ezberdinetatik aztertzen dira. Batik bat 80ko hamarkadatik aurrera, generoaren inguruko azterketetan nabarmentzen hasi zen diskurtsoaren analisia besteak beste. Analisi-proposamen ugari egonda ere, metodo zehatzik gabeko metodologia da, diskurtso oro ezberdina delako eta azterketaren norabidea bera helburuek eta hipotesiek baldintzatzen dutelako (Santander, 2011).

Kasu honetan, behaketa-unitatea *Cincuenta sombras de Grey* eleberria da. Ikerketaren helburuei jarraikiz, analisi-unitateak aurrez landutako kontzeptu teoriko nagusiak izan dira: genero-rol tradizionalak, maitasun erromantikoa, zeloak eta kontrola, mikromatxismoak eta gainerako indarkeria matxistaren adierazleak. Horien adierazpenak bilatu dira eleberrian eta koherentzia mantentzeko testu zati ezberdinak talde berberetan sailkatu dira. Ondoren, daukaten lotura zuzenagatik osotasuna emateko asmoz hiru talde nagusitan banatu dira: pertsonaien deskribapena (rolak eta estereotipoak), maitasun erromantikoa nobelan eta indarkeria matxistaren adierazleak. Jarraian zerrendatzen direnak baino ugariagoak dira eleberrian topa daitezkeen adierazpenak, baina nolabait mugatu beharra dagoenez, adierazgarrienak kontsideratu direnak hautatu dira.

## 4.2. Sinopsia

Aztergai dugun lehenengo atal hau Estatu Batuetan kokaturik dago, mendebaldeko kostan hain zuzen ere, Seattle eta Portland-en. Anastasia Steele (Ana) izeneko neska gazte batek kontatzen du istorioa lehenengo pertsonan. Ingeles Literatura ikasketak amaitzen ari da, bere pisukideari mesede bat egitearren, Christian Grey enpresari arrakastatsua eta izugarri aberatsa elkarrizketatzen du. Bere bizitzan lehenengo aldiz, Anak desira sexual indartsu bat sentitzen du, eta ez da denbora asko igarotzen bikoteak pasioz beteriko harreman bat hasten duen arte. Arazo bat dago ordea: Christian-en zaletasun sexualak oso bestelakoak dira, eta Ana BDSMaren munduan murgiltzea nahi du<sup>7</sup>, kontratu baten bitartez bere *menpekoa* izan dadin, ez baitzaio beste mota bateko erlaziorik interesatzen. Baina Anak zalantzak dauzka, ez baitzen hori espero zuen harremana.

## 4.3. Pertsonaien deskribapena (rolak eta estereotipoak)

Anastasia Steele neska gazte bat da, bere burua zalantzati, lotsati eta trakets gisa definitzen duena. Eztia da, esanekoa, birjinala, inuzentea, barnerakoia eta ahula. Haren zaletasunik handiena irakurtzea da, eta bere sare sozial mugatua dela medio (ez baitu harreman sozialetarako gaitasun handirik), bere erreferente nagusiak XIX. mendeko ingeles literaturako pertsonaia femeninoetan bilatzen ditu. Oso autoestimu baxua dauka eta zenbait egoera edota pertsonaren aurrean erraz kikiltzen den horietakoa da. Sexuari eta bikote-harremani dagokienez, ez dauka inongo esperientziarik eta maitasunaren inguruan dauzkan ideiak guztiz erromantikoak dira. Genero-rol femenino tradizionalaren paradigma kontsidera daiteke, sozialki prestigio gabeko eta negatiboki baloraturiko ezaugarriak jositakoak. Bi lagun min dauzka: Katherine Kavanagh, bere pisukidea den Kazetaritza ikaslea, neska oso polit, erakargarri, sentsual eta karismaduna bezala deskribatzen duena; eta José Rodríguez argazkilaria eta Ingeniaritza ikaslea, Ana gustuko duen mutil hispanoamerikar gihartsu eta lerdena. Bi nesken artean moral sexual bikoitza ageri da: lehenak tradizionalki baloratu den eskakizuna betetzen du: emakume *zuria*, garbia, purua (behintzat Christian-ek «galbideratzen» duen arte); eta bigarrenak sozialki arbuiatu den (baina hala ere eskakizun bat den) sentsualitatea, erakargarritasuna, lotsagabekeria. Anaren ama behin eta berriz ezkontzen den etxekoandre zentzugabe, irrazional eta sentibera bezala deskribatzen da, eta Anaren aita, berriz (izatez, aitaordea dena),

---

7. Ingelesezko siglengatik: *Bondage, Discipline-Dominance, Submission-Sadism, Masochism*. Termino hau lehen aldiz 1991n atera zen ohiko sexualitateetik at geratzen diren hainbat praktika barnebiltzeko, eta gaur egun azpikultura konkretu bat kontsideratzen da. Harreman sexualen barnean, guztiz kontrajarriak diren bi rol antzezten dira, dominatzailearena eta dominatuarena alegia. Rol asimetrico horiek gorabehera, BDSM harremanak elkarrekiko errespetuan oinarritzen dira, eta burutzen diren praktikek betiere parte-hartzaileentzat ziurrak, zentzudunak eta hitzartuak izan behar dute; hizkuntza eta kode propioak eta segurtasun-hitzak erabiltzen dira dominatuak edo dominatzaileak praktika sexuala eten nahi izatekotan. Botere-harreman hierarkiko hori harreman sexualen *rol playing*-aren markuan soilik gertatzen da (Herrera, 2013: 196-198). Interesgarria litzateke dominante eta dominatu kopurua sexuari dagokionez aztertzea (genero-inplikazio nabariak dituen zerbait baita), printzipioz BDSMak ez du zertan indarkeria matxista inplikatu bi pertsona helduren (edo gehiagoren) artean adostutako eta onartutako rol-joko sexual bat den bitartean. Dena den, argi dago BDSMaren ezaugarri eta izaerak zaildu egin dezakeela horrelako harreman baten barnean benetako indarkeria-seinaleak identifikatzea.

futbola, boloak eta arrantza gustuko dituen militar ohia da, gaur egun arotza dena eta oso adimen emozional eskasa daukana.

Christian Grey hogeita zazpi urteko enpresari arrakastatsu, autoritario eta izugarri aberatsa da, handiustez betea eta harroputza. Oso mutil erakargarri, sensual eta limurtzaile gisa deskribatzen da, neska oro txundituta uzten dituelarik bere edertasunak. Kontrol-obsesioak jota bizi da eta berebiziko kontsumista da. Luxua maite du eta daukan boterea erabiltzen du *edozer* eskuratzeko. Oso jarrera posesibo eta paternalistak dauka, berak dioen moduan, *bere emakumeekin*, objektu sexual huts kontsideratzen dituenak. Beldurgarria ere suerta daiteke batzuetan, eta oso izaera aldakorra dauka, umore onez egotetik berehala haserretzerainokoa. Ez du uzten familiakoa ez den inork berari hika mintzatzen eta oso jokamolde finekoa da. Enigmatikoa eta barnerakoa da, eta emozionalki oso hotza. Bikote-harremanei dagokionez, ez dauka inongo esperientziarik, eduki dituen harreman guztiak sexualak baizik (BDSM praktikak soilik) ez dira izan eta. Potentzia sexual handidun gizona da (sexua bere zaletasun handiena da planeagailuak eta helikopteroak pilotatzearekin batera). Sexuak aktiboa izatea gizarte-patriarkaletan gizonezkoei atxikitzen zaien ezaugarria da, eta zakila, nagusitasun maskulinoaren sinbolo nagusia da (Millet, 1995: 107). Christian-ek (nola ez) zakil handia dauka: «Libera su erección: ¡madre mía!» (James, 2012: 133). Maskulinitate hegemonikoaren agindu oro betetzen du (agresiboa, eremu publikoan arrakastatsua, matxista, gonazalea, aberatsa, arrazionala...), baita edertasun-kanonak ere, eta Herreraren arabera (2013: 57) identitate maskulinoa eraikitzen duten hiru ukazioak (eta horien atzean ezkutatzen diren ezaugarriak), betetzen ditu: «ez naiz emakumea», «ez naiz homosexuala» eta «ez naiz umea». Aipagarria da liburu horretan «ez naiz emakumea» ukazioa «ez naiz Anastasia» gisa uler daitekeela, bi protagonisten ezaugarri guztiak erabat aurkakoak baitira. Bere bizitzako lehenbiziko urteak oso gogorak izan omen ziren, bere ama biologikoa prostituta drogazale bat baitzen eta gosea eta tratu txarrak pairatu baitzituen. Prostituzioari ezartzen zaion estigma nabarmena da, ama prostituta izana bereziki mespretxatzen baitu. Lau urte zituela Grey familiak adoptatu zuen; bere ama pediatra da, aita berriz abokatua, anaia arkitektoa eta arreba sukaldaritza-ikaslea. Bere adiskide bakarra, hamabost urte zituelarik BDSMaren mundua erakutsi zion emakumea da.

Pertsonaia guztiak genero-estereotipo nahiz rol tradizionalen gainean eraikitzen eta oinarritzen dira erabat, protagonistak bereziki, baina baita bigarren mailako pertsonaiak ere. Lanaren banaketa sexuala ere guztiz nabaria da denengan. Horrek idazlearen paradigman eta eleberraren tonu orokorraren berri ematen digu. Ez da honakoa ahaztu behar: «Esta es una novela de mujeres, escrita por una mujer, leída (principalmente) por mujeres, claramente publicitada hacia las mujeres y más apreciada por las mujeres que por los hombres» (Illouz, 2014: 46). Nobela honen irakurle diren emakume askok Anak barnebiltzen dituen pasibotasuna eta menpekotasuna idealiza ditzakete. Eleberr honek hainbeste arrakasta izan badu, ereduok gizartean oraindik oso barneratuak dauden seinale da, desiragarriak direla ere esan ahalko litzateke, eta hori oso kaltegarria da berdintasunari dagokionez:

Basta realizar una pequeña observación de la sociedad en sus diferentes ámbitos como son los políticos, profesionales, relacionales, entre otros, donde resulta fácil deducir que esta novela ha llegado hasta tal triunfo debido a la inevitable aceptación inconsciente y cultural del patriarcado existente. Pues, se trata de un hecho que se escabulle integrándose como forma de vida de los individuos de esta sociedad machista (Montero eta Hernando, 2016: 346-347).

#### 4.4. Maitasun erromantikoa nobelan

Eleberriak eskaintzen duen maitasunaren ideia, maitasun erromantikoari eta haren mitoei guztiz loturikoa da. Mito guztien artean irabazten ateratzen dena «maitasunaren ahalguztiduntasunaren mitoa» da. Izan ere, nobela osoaren (eta trilogiaren) gaia da zailtasun oro gainditzeko duen maitasunaren gaia, baita maitasunak pertsonak aldatzeko duen gaitasuna ere, pixkanaka ikus baitaiteke, Christian Anaz maitemintzen doan heinean, nola gainditzen dituen bere iraganeko mamuak eta gero eta gehiago onartzen duen bizitza sexual konbentzional bat, Anak nahi duena azken batean. Ezinezko maitasunaren istorioa ere bada, guztiz aurkakoak eta bateraezinak diren bi pertsonaren arteko harremanarena.

Baina horren atzean, beste hamaika mito eta jarrera daude, testuan zehar landu denarekin bat egiten dutenak. «Laranja erdiaren mitoa» indarrez azaltzen zaigu hasiera-hasieratik, honelako esaldietan adierazten delarik: «Nunca había sentido algo así por nadie. [...] Es el único hombre que ha conseguido que sienta la sangre corriendo mis venas» (James, 2012: 83). Christian-en kasuan ere, Anastasia ezagutu arte ez du sekula inorekin lo egin edota inorekin sexuaz haratago doan harreman bat eduki nahi izan, Anarekin ordean, bai. Horrek guztiak pertsona bakoitzarentzat predestinaturiko beste bat dagoen ideia transmititzen du.

Maitasuna irrazionala den ustea ere asko antzematen da nobelan, baita «aukeramen librearen mitoa» ere, hots, maitasuna inongo kanpo- edo barne-faktorek baldintzatu ezin duen sentimendua den ustea, oharkabean eta ezinbestean datorrena. Izan ere, nahiz eta Anastasia kontziente den Christian Grey komeni ez zaion gizon bat dela, fisikoki nahiz emozionalki mina emango diona, berarekin jarraitu beste erremediorik ez du, maite duelako. Gainera, maitasuna beste ezer baino garrantzitsuagoa denez emakumeen bizitzan, gutxienezkoa da ekar dezakeen arriskua. Christian-ek lehenengo aldiz bere praktika sexualak nolakoak diren erakusten dionean, honakoa da Anak pentsatzen duena: «Kate me había dicho que era peligroso, y tenía mucha razón. ¿Cómo lo sabía? Es peligroso para mi salud, porque sé que voy a decir que sí» (James, 2012: 117). Eta Christian-ek lehenengo aldiz fisikoki «zigortzen» duenean: «Me lo dijo entonces, pero en aquel momento yo no pensaba más que en ser suya. Todas las señales de advertencia estaban ahí, y yo estaba demasiado despistada y demasiado enamorada para reparar en ellas» (James, 2012: 301).

Azken esaldi horretan maitasuna itsua den sinesmena ere adierazten da argi eta garbi, eta nobela osoan zehar errepikatzen da. Horrez gain, *ser suya* horrek posesibotasuna eta dependentzia ideiak barnebiltzen ditu, eta emakumeentzat beste norbaiten ondasun edo pertenenentzia izatea desiragarria den zerbait bailitzan saltzen

du. Nahiz eta hasiera batean gizon harroputz eta beldurgarri bat iruditzen zaion Christian Anari, ezagutzen duen momentutik maitemintzen da berataz (bat-bateko maitemina maitasun erromantikoaren beste mito bat delarik), zergatik ulertzen ez duen arren, maitasuna irrazionala eta gure erabakimenetik at dagoen zerbait baita:

Ningún hombre me había impactado como Christian Grey, y no entiendo por qué. ¿Porque es guapo? ¿Educado? ¿Rico? ¿Poderoso? No entiendo mi reacción irracional. Suspiro profundamente aliviada. ¿De qué diablos va esta historia? Me apoyo en una columna de acero del edificio y hago un gran esfuerzo por tranquilizarme y ordenar mis pensamientos. Muevo ligeramente la cabeza. ¿Qué ha pasado? Mi corazón recupera su ritmo habitual y puedo volver a respirar normalmente (James, 2012: 27).

Pierdo la razón cuando estamos juntos; así de intenso es lo que siento por ti (James, 2012: 424).

Deskribatzen den maitasuna pasioz beterikoa da, guztiz erotikoa: «Me toco los labios, hinchados por el beso. Sin la menor duda ha sucedido. Soy otra mujer. Deseo a este hombre desesperadamente, y él me desea a mí» (James, 2012: 95). Aipatzekoa da badirudiela Anari bizitza guztiz aldatzen zaiola musu baten ondorioz, beste emakume bat izateraino. Horrek transmititzen duena zera da, neska bat ez dela guztiz emakume gizon batek musu ematen dion arte, edota emakume batzuk besteengandik bereizten dituen, gizon bat musukatu izana ala ez izana dela. Jarraian jasotzen den aipuak ere ondo adierazten du maitasun sutsuaren ideia:

Nuestros dedos se rozan un segundo, y ahí está de nuevo la corriente, que me recorre como si hubiera tocado un cable suelto. Jadeo involuntariamente al sentirla desplazándose hasta algún lugar oscuro e inexplorado en lo más profundo de mi vientre. Intento serenarme desesperadamente (James, 2012: 38).

Ana edozer egiteko prest dago Christianengatik: «En este momento sé que haría cualquier cosa por este hombre. Soy suya» (James: 2012: 161), eta beste edozein baino garrantzitsuagoa kontsideratzen du: «La idea de que Kate y Christian se enfrenten me incomoda. Tengo que decir que no sé por quién de los dos apostaría» (James, 2012: 257); aipatu beharra dago liburu honetan kontatzen den guztia hiru astetako gertakizunak besterik ez direla. Jarraian jasotzen diren esaldiek ondo adierazten duten gisan, Anak ezin du Christian bere burutik kendu, etengabe pentsatzen du berarengan. Elkar ikusiko duten momentuaren zain dago beti, eta ezin du jasan Christian galtzearen ideia edo berarengandik urruntzearena:

Sé que desde entonces he soñado con él casi todas las noches (James, 2012: 35).

Avanzo por el pasillo con las piernas temblando, el estómago lleno de mariposas y el corazón laténdome violentamente. Voy a tomar un café con Christian Grey... y odio el café (James, 2012: 53).

¡NO!, grita mi mente mientras él se aparta dejándome desamparada (James, 2012: 63).

El recuerdo del beso de la mañana vuelve a obsesionarme. No he pensado en otra cosa en todo el día. En Clayton's no podía quitármelo de la cabeza. El señor Clayton



ha tenido que gritarme dos veces para que volviera a la Tierra. Decir que he estado distraída sería quedarse muy corto (James, 2012: 102-103).

No quiero que se marche. Quiero seguir más tiempo con él. [...] Sale del coche, [...] ¿Por qué de pronto me siento huérfana? (James, 2012: 177).

No creo que pueda aguantar lejos de ti tanto tiempo. Apenas lo consigo ahora (James, 2012: 239).

El avión arranca con una sacudida y yo suspiro de alivio, pero también siento una leve punzada de desilusión: no habrá Christian en cuatro días (James, 2012: 416).

—No podría soportar perderte. [...]. No me dejes. Me dijiste en sueños que nunca me dejarías y me rogaste que nunca te dejara yo a ti (James, 2012: 530).

Azkenik, zeloen mitoa ere oso presente dago eleberrian: «El ataque de celos que he sentido hace un momento me dice que mis sentimientos por él son más profundos de lo que me he reconocido a mí misma» (James, 2012: 219), baita kontrolarekin zerikusia dutenak ere; eleberriko momentu batean Anak Christiani gehiago ikusi nahi ez duela esaten dionean, azken hori neskaren etxean agertzen da bat-batean, Anaren erabakia inondik inora errespetatu gabe. Horren aurrean, Kate pisukideak Anari azalpen hau ematen dio: «Eso es que está loco por ti» (James, 2012: 221).

Baina Anaren dependentzian guztiz oinarritua dagoen harreman bat izateaz gain, sufrimendua eta sakrifizioa ere sortzen dituen harreman bat da. Azken batean, Anak ez ditu batere gogoko Christian-en praktika sexualak, ezta hark proposatzen dion harreman mota ere (erromantizismo gabea, sexuan soilik onarritua, kontratu bati lotua...), fisikoki eta emozionalki mintzen baitute. Ezagutu duenetik behin eta berriz egiten du negar eta autoestimua are gehiago jaisten zaio, eta gainera, etengabe dabil ebaluatzen Christianen erantzunak zeintzuk izango diren, beldurra diolako: «¿Por qué estoy nerviosa? Sé que es porque no tengo ni idea de qué humor va a estar Christian cuando llegue» (James, 2012: 503). Jarrera horiek, Gálligo-ren (2009: 78) arabera, indarkeria jasatearen seinale dira. Baina maite duelako dena onartzen du. Nahiago duelako hori bera gabe egotea baino (ez baitago harremana galtzea baino gauza okerragorik), eta nola ez, «maitasunaren ahalguztiduntasunaren mito»aren pean, noizbait aldatuko den itxaropena daukalako.

Nobelak transmititzen duen ustezko maitasun-idea oso arriskutsua da, emakumeei erakusten baitie beren maitatzeko erak guztiz esanekoa izan behar duela, eta maitasunagatik edozer jasan behar dutela. Eleberriaren inguruan sortu diren foroetako batean idatzitakoak garbi erakusten du nola barneratzen nahiz idealizatzen den eredu hori:

De Christian creo que todas estamos enamoradas. Siento que los hombres deberían leer el libro para que aprendan a seducir (eso explica porque soy virgen) quisiera un hombre así en mi vida al que le puedas jurar amor por más demonios que tenga encima y ese que te sobreproteja hasta volverte loca pero que sientas que es necesario porque eres la princesa de su torre de marfil, así como la vajilla de cristal China de la dinastía Ming, única. De verdad estoy enamorada. (Enguix eta Núñez-en, 2015: 60 aipatua)<sup>8</sup>.

---

8. Egile hauek gaineratzen dute foroetan erabiltzen diren hainbat *nick* «buscoungrey» edota «quieroungrey» direla.

Harrigarria eta kezkarria suertatzen da eleberri honek jarraian jasotzen dena bezalako aldeko kritikak eduki izana, feministatzat hartzeraino: «Su estructura narrativa y sus personajes han incorporado conscientemente el código cultural feminista, [...]. En suma, Ana es el modelo de autoafirmación soñado por el feminismo, y es en esa forma que ha sido deliberadamente codificada en la narración» (Illouz, 2014: 74-75). Illouz-ek (2014) sexurako autolaguntza-liburutzat jotzen du, emakumeak sortzaile izan eta euren plazer sexuala aberastera bultzatzen dituen liburua. Egilea ez dago guztiz oker, Pujol eta Esquirol-ek (2014: 59-60) aipatzen duten bezala, eleberriaren arrakastaren ostean, emakumeei zuzenduriko irakurketa erotiko elkarteak, jostailuak, lentzeria, pelikulak, artikulua erotikoak... ugaritu egin baitira, baita sexualitateaz modu irekian hitz egiteko eztabaida-taldeak sortu ere. Hori eleberriaren ondorio ontzat har daitekeen arren, ez da nahikoa transmititzen duen ideologia patriarkal eta indarkeriazkoa ezabatzeko, eta, gainera, testuinguru horretan erakutsitako praktika sexualak ezin kontsidera daitezke parekideak: «En el caso de *Cincuenta sombras de Grey*, la regulación de la representación y del discurso sexual se establece mediante una relación de poder gestada en términos sociales y de género, principalmente» (Pujol eta Esquirol, 2014: 62). Eleberriaren ondorio larrietako bat liburuko eszena sexual bat imitatu nahian mutil-lagunak hil zuen neskaren heriotza da, beraz, emakumeen sexu-askapenaren izenean jasotzen dituen aldeko kritika horiek kontu handiz egin beharrekoak dira (Izquierdo *et al.*, 2013: 432).

Horrez gain, Illouz-ek (2014) gehiago kontsideratzen du berdintasun-fantasia bat dominazio-istorio bat baino, Ana Christian-en eraldaketaren agente aktibo dela uste baitu; baina hori maitasun erromantikoaren trikimailu garbia da (ahalguztiduntasunaren mitoa), ziur aski beharrezkoa liburuak arrakasta izan zezan, ezin baita ahaztu praktika sexual «apurtzaile»-en atzean dagoena betiko printze urdinaren eta printzesaren arteko istorioa dela. Heteroarauak genero-rol tradizionalak nahiz portaera zilegien mugak modu guztiz kontserbadorean berresten ditu finean. Hainbat egileren arabera (Enguix eta Núñez, 2015; Montero eta Hernando, 2016), liburuaren arrakasta, betiko istorio erromantiko tradizionalen eta alde erotiko berritzailearen arteko fusioa da, hain zuzen.

#### 4.5. Indarkeria matxistaren adierazleak

*Cincuenta sombras de Grey*-n badira bestelako indarkeria-adierazle ugari ere. Are gehiago, indarkeria matxista mota ia guztiak ematen dira, batzuetan esplizituki, eta bestetan inplizituki mikromatxismo eta kontrol-jarrerren bitartez.

BDSM harremanak mantentzen has daitezen Anak sinatu behar duen kontratuan, honako puntu hauek irakur daitezke, antzeko beste batzuen artean:

15.2. El Amo puede utilizar el cuerpo de la Sumisa en cualquier momento durante las horas asignadas, o en horas adicionales acordadas, de la manera que considere oportuno, en el sexo o en cualquier otro ámbito.

15.5. El Amo puede azotar, zurrar, dar latigazos y castigar físicamente a la Sumisa si lo considera oportuno por motivos de disciplina, por placer o por cualquier otra razón, que no está obligado a exponer.

15.13. La Sumisa acepta al Amo como su dueño y entiende que ahora es de su propiedad y que está a su disposición cuando al Amo le plazca.

15.19. La Sumisa no se tocará ni se proporcionará placer sexual sin el permiso del Amo.

15.20. La Sumisa se someterá a toda actividad sexual que exija el Amo, sin dudar y sin discutir.

15.21. La Sumisa aceptará azotes, zurras, bastonazos, latigazos o cualquier otra disciplina que el Amo decida administrar sin dudar, preguntar ni quejarse (James, 2012: 189-191).

Baina Anastasiak kontratua inoiz sinatzen ez badu ere, bertan jartzen duena praktikara eramaten da eleberrian zehar. Dominazio-harremana (kontratuan bertan ikus daitekeen gisan), Enguix eta Núñez-ek (2015: 66) diotenaren aurka<sup>9</sup>, ez da esparru sexualera mugatzen (BDSMan bezala), eta zigor fisikoak Christian zerbaitek izorratu duelako ematen dira, esaterako, Anastasiak bere lagun Joserekin egon dela kontatu ez diolako edota begiak txurian jarri dizkiolako. Orgasmoa ere ukatzen dio zigor bezala: «No te masturbes. Quiero que te sientas frustrada. Así es como me siento yo cuando no me cuentas las cosas, cuando me niegas lo que es mío» (James, 2012: 373). Azken esaldi horretan gainera, Anastasiak dena kontatu behar dion agindua dago, berea kontsideratzen duelako. Komunikatzera behartzen du, baina berak, aldiz, ez dio apenas ezer kontatzen bere bizitzaz eta egiten duenaz. Bestetan, zigor horiekin mehatxatu egiten du (hori ere indarkeria da): «Ay, cuánto me gustaría darte una buena tunda. Te sentirías mucho mejor, y yo también» (James, 2012: 218).

Horrez gain, ez da bien artean adostutako kontratu bat, guztiz unilaterala baizik, adostu dezaketen bakarra praktika sexual jakin batzuk baino ez baitira. Dena den, Bonomi, Altenburger eta Walton-ek (2013: 740) baieztatzen dutenez, indarkeria sexuala beti ematen da, Christian-ek inoiz ez dituelako Ana-k zehaztutako mugak errespetatzen, alkohola erabiltzen duelako Ana-ren onarpena lortzeko eta ikaratu egiten duelako sexu-harreman oro haserre dagoenean hasiz. Christian-ek behin eta berriz estutzen du Ana kontratua onar dezan: «Anastasia, necesito una respuesta. La espera está volviéndome loco» (James, 2012: 260), batzuetan sexua arma bezala erabiliz konbentzitzeko, eta beste batzuetan intimidatuz, opari oso garestiekin limurtuz<sup>10</sup>, edota beste behin ere Ana mozkortuz baietza eman dezan. Ezin da kontsideratu, beraz, pertsona batek erabateko kontzientziarekin onarturiko kontratua denik, inolaz ere, ezta BDSMan eskatzen duen adostasuna dagoenik (Bonomi, Altenburger eta Walton, 2013). Ana mozkortzen duenean, osterantzean berarekin zintzotasunez komunikatzen ez den aitzakiarekin egiten du. Hori hala izanik ere, Ana bere erantzunen beldur delako ez zaio zintzotasun osoz mintzatzen berarekin aurrez aurre dagoenean, eta beldur hori ere bada, indarkeriaren seinale:

---

9. «Anastasia nunca asume socialmente el papel de sumisa, aunque en lo sexual se adapta a las costumbres sexuales de su pareja».

10. Opariak jazarlearen presentzia eta kontrola gogorazteko erabiltzen dira, baita jazarpena bera gauzatzeko ere telefono mugikorra edota ordenagailua oparitzen dizkionean.

—¿Tienes algo que contarme? —me dice de pronto muy serio.

Lo miro ceñuda. Mierda.

—He soñado algo esta mañana.

—¿Ah, sí?

Me mira furioso.

Mierda, mierda. ¿A que la he liado? (James, 2012: 290).

Kontrol-jarrerei dagokienez, Christian Grey-ri gauza eta pertsona guztiak kontrolpean mantentzea gustatzen zaio, baita Ana ere. Hori dela-eta, kontratuan bertan hainbat arau inposatzen dizkio, harreman sexuarekin inongo zer ikusirik ez dutenak:

La Sumisa garantizará que duerme como mínimo ocho horas diarias cuando no esté con el Amo. [...] la Sumisa comerá frecuentemente los alimentos incluidos en una lista [...]. La Sumisa no comerá entre horas, a excepción de fruta. [...], la Sumisa solo llevará ropa que el Amo haya aprobado. [...]. El Amo proporcionará a la Sumisa un entrenador personal cuatro veces por semana, en sesiones de una hora, [...]. El entrenador personal informará al Amo de los avances de la Sumisa. [...]. La Sumisa estará limpia y depilada en todo momento. La Sumisa irá a un salón de belleza elegido por el Amo cuando este lo decida y se someterá a cualquier tratamiento que el Amo considere oportuno. [...]. La Sumisa no beberá en exceso, ni fumará, ni tomará sustancias psicotrópicas, ni correrá riesgos innecesarios (James, 2012: 192-193).

Ikusten den legez, betebeharrak, aginduak eta arauak ezartzen ditu etengabe harremanean (ordutegiak, ekintzak, jarrerak...) Anaren baimen eta onarpen gabe. Hori, Gálligo-ren (2009: 83) esanetan, tratu txarren ohiko jarrera bat da. Aipatzekoa da edertasun fisikoari ematen dion garrantzia, Ana edertasun-kanon hegemonikoaren barnean egotea nahi duelarik. Eta ez da ahaztu behar, betebeharrak horiek Anarentzat soilik direla, Christian-ek inongo araurik ez duen bitartean.

Bestalde, etengabe jakin nahi du Ana non dagoen. Are gehiago, Anaren mugikorraren arrastoa jarraitzen du bai non dagoen jakiteko baita haren helbidea zein den ikusteko ere, neska jakinaren gainean egon gabe. Ana amari bisitan joaten zaionean Georgiara, Christiani beren harremanari buruz pentsatzeko distantzia behar duela esanez, azken hori Georgian agertzen da bat-batean Anaren beharrei muzin eginez. Jazarpen etengabearen aurrean Ana haserre agertzen da bere bakarrizketan, baina ez du jakinarazten eta Christian-en haserreak ekiditeko eran jokatzeko du:

Cinco llamadas perdidas y un mensaje de voz [...]. Mierda, mierda. ¿Es que nunca me va a dar un respiro? Miro ceñuda el teléfono. Me asfixia. Con una honda sensación de miedo en la boca del estómago, localizo su número y pulso la tecla de llamada. Mientras espero a que conteste, se me sube el corazón a la boca. Seguramente le encantaría darme una paliza de cincuenta mil demonios. La idea me deprime (James, 2012: 325).

Horrez gain, oso jeloskorra da eta Anaren lagun gizonezkoekiko hotz mantentzen da, Anari mutil horiekin daukan harremanari buruzko galderak eginez. Oso posesiboa da, eta Ana berea den ondasun bat kontsideratzen du: «Eres mía [...]. Sólo mía. No lo olvides» (James, 2012: 136), edota: «Te quiero dolorida, nena [...]. Quiero que, cada vez que te muevas mañana, recuerdes que he estado dentro de ti. Solo yo. Eres mía» (James, 2012: 138). Horiek guztiak indarkeria psikologikoaren adierazle garbiak dira:

Aquí te muestro algunas formas habituales de violencia psicológica [...]. En general, toda forma de comportamiento posesivo, absorbente o exclusivo que te haga llegar a considerarte de su propiedad y que, en caso de no satisfacerle como él exige, te pueda hacer sentir mal contigo misma por no haber obedecido totalmente sus órdenes (Gálligo, 2009: 51-52).

Christian-ek oso jarrera paternalistak dauzka sarritan, berak Anak baino hobeto jakingo balu bezala zer komeni zaion. Moral bikoitzaz jokaten du, esaterako, Anari galdera asko egiten dizkio, baina Anak berari egitea ez du atsegin eta ez dizkio erantzuten; Anaren gorputzarekin nahi duena egin dezake nahi duenean, baina Anak guztiz debekatuta dauka Christian ukitzea; edota inongo arrazoi gabe jeloskor jartzen da eta ez zaio Ana bere lagun gizonezkoekin egotea gustatzen, baina bera bere *sexukide* ohiarekin nahi duenean gera daiteke, lagun bat besterik ez da eta. Gainera, pena ematen saiatzen da biktimaren papera hartuz eta bere portaera oro izan zuen zoritxarreko haurtzaroari leporatuz, eta hala, bere erru guztiak kanpo-faktoreei egotziz eta, aldi berean, Ana emozionalki manipulaturik: «Lo noto tan triste y resignado que se me encoje el corazón. [...] de pronto quiero abrazarlo. Consolarlo» (James, 2012: 326). Erabakiak bere kabuz soilik hartzen ditu: jatetxeetan berak eskatzen du Anak hartuko duena; ginekologoa berak aukeratzen dio, berak erabakitzen duelako (preserbatiboak atsegin ez dituelako) Anak antisorgailu hormonalen bat hartzea, etab. Eta gainerako pertsonekin atsegina den bitartean, Anarekin guztiz autoritarioa da. Guztiak dira mikromatxismoak, baita bikote-harremanetako tratu txar portaerak ere Gálligo-ren (2012: 82-85) esanetan. Montero eta Hernando-k ere (2016: 346), Vanesa Fernández López psilogoaren esanetan oinarrituz, Christian Grey-k tratu txar egile baten ezaugarri oro daukala baieztatzen dute: kontrolatzailea, emozioak kudeatzeko zailtasunak, enpatia-arazoak, frustrazio-onarpen baxua, umore-aldaketa bortitzak, erraz sumintzekoa, edota errua besteei egoztekoa.

Christian-ek astebururo nahi du Ana berarekin egotea ostiraletik igandera. Hori bere inguru sozialetik aldentzeko modu bat da, indarkeria soziala, alegia. Eta hori gutxi balitz, beren harremana hasten denean, konfidentzialtasun-akordio bat sinarazten dio Anari, euren artean gertatzen den oro inori kontatzea ekiditen diona. Horrek ikaragarritzko botere eta kontrola ematen dio, Anak ezin baitio inori kontatu elkarrekin duten harremanaren izaera, ez eta sentiarazten diona ere. Bere harremanekin hitz egiten duena kontrolatzeko eta mugatzeko era bat da, eta finean, behar izanez gero laguntza eskatzea oztopatzeko mekanismo bat ere. Batik bat generoan oinarritzen den botere-harremana, gainera, bestelako botere sozialen mekanismoei elkartuta ageri da (adina eta klase soziala), pribilegio eta zapalkuntza indibidualak ugarituz (Enguix eta Núñez, 2015: 52).

Artikulu honen ondorio berdinetara heltzen diren zenbait egilek adierazten dutenez, Anastasiak indarkeria matxista pairatzen duen emakume baten ezaugarri berberak ditu:

Anastasia's reaction to Christian's coercive, manipulative strategies are consistent with those of battered women, including perceived threat (perceptions of impending harm); managing (direct action or inhibition of action to «keep the peace»); altered identity (changed self-concept/loss of identity from images abusers reflect); yearning (futile attempts to establish intimacy with an abusive partner); entrapment (perceptions of being trapped in the relationship resulting from abuser's control); and disempowerment (loss of power and habitual behavior modification from prolonged exposure to abuse and to fit abuser's desires) (Bonomi, Altenburger eta Walton, 2013: 737).

Horrenbestez, eleberri hau maitasun-istorio bat baino areago, indarkeria-istorio bat dela esan genezake. Botere-harreman guztiz desorekatu bat garatzen da bikotean, bai sexuan, baina baita sexu-esparrutik kanpo ere. Baina alde batetik maitasun erromantikoaren mitoek, eta bestetik, BDSMaren aitzakiak, estali egiten dute indarkeria hori guztia, eleberri onargarri eta are gehiago, *best seller* bilakatzera heldu den arte. Illouz-ek *best seller*-en ezaugarrien inguruan ematen duen azalpena baliagarria da oso horren larritasunaz ohartzeko: «Los best sellers se definen por su capacidad de captar valores y actitudes que, o bien ya son dominantes y están ampliamente institucionalizados, o están suficientemente difundidos para que un medio cultural pueda presentarlos como corrientes» (2014: 16).

## 5. Ondorioak

Sozializazio-prozesuaren bitartez, pertsonok bizi garen gizartera egokitzen ikasten dugu bertako balio, itxaropen nahiz portaera desiragarriak barneratuz eta erreproduzitzen. Sozializazio hori, ordea, oso ezberdina da gizonentzat eta emakumeentzat, sexu batean edo bestean jaio izanagatik, paper edo funtzio ezberdinak ezartzen baitzaizkie, genero-rolak alegia. Oinarri biologiko baten gainean (sexua) eraikitako ezberdintasun soziokulturalak (generoa) baizik ez dira, baina aitzitik, naturalizat hartzen direnak eta txiki-txikitatik ikasten direnak. Feminitate tradizionalaren aginduek emakume esanekoak, zaintzara emanak, eremu erreproduktibo eta pribatuari lotuak... eskatzen dituzte, emakumeen haurdun gelditzeko eta erditzeko gaitasuna dela medio, egokiagoak kontsideratuz funtzio horiek betetzeko. Maskulinitate tradizionalak, berriz, gizon boteretsuak, burujabeak, eremu produktiboan eta publikoan arrakasta lortuko dutenak... eskatzen ditu.

Baina gizarte patriarkal batean bizi garen heinean, balio maskulinoak balio femeninoen gaindi ezartzen dira botere-harreman guztiz asimetriko batean. Horrek feminitateari eta emakumezkoek atxikitako ezaugarrien gutxiespena eta errekonozimendu falta dakar, eta, beraz, gizonetzkoek baino eskubide eta botere-maila baxuagoak edukitzea. Genero-rol tradizionalak oztopo handi bat dira berdintasunari dagokionez, generoen arteko botere-harreman oso desorekatuak sortzen dituzte eta. Indarkeria matxistak hain zuzen ere, ezberdintasunean oinarrituriko harreman sozial horietan dauka kausa. Horrenbestez, emakumeen aurkako indarkeria ez da ustekabeko edota egoeraren araberako zerbait, egiturazko arazo bat baizik.

Gure jendartean nagusi den maitasun-ereduak, maitasun erromantikoaren ereduak hain zuzen, funtsezko zeregina betetzen du bikote-harremanen barneko indarkeriaren sustatzean eta babestean. Izan ere, gizon-emakumeek sozializazio-prozesuaren bitartez maitatzen ere ikasten dute, baina euren genero-rolari oso loturiko modu guztiz ezberdinean. Pixkanaka rol horiekin hausten bagoaz ere, eta Mendebaldeko gizartean gizonen eta emakumeen artean gero eta berdintasun-maila altuagoa daukagun arren, maitasun erromantikoan genero-rol tradizionalak indar handiz txertatzen dira oraindik, ustezko benetako maitasunak nolakoa izan behar duen inguruko sinesmenak adieraziz emakumeen maitatzeko era guztiz arriskutsuak diren oinarri batzuetan eraikiz; emakumeen sozializazioan zaintzak eta besteen ongizateak daukaten garrantzia dela medio, maitasuna eta bikote-harremanak ere euren bizitzen jomuga nagusi bailiran transmititzen zaizkie, maitasunagatik edozein sakrifizio egitera, edozer barkatzera eta onartzera, etab. bultzatuz, eta, aldi berean, bikote gabeko bizitza batekiko beldurra sustatuz; badirudi beste egoera batzuetan guztiz lekuz kanpo egongo liratekeen jokabide eta portaerek zilegizko esparrua topatzen dutela maitasun erromantikoaren babesean. Maitatzeko era guztiz dependentea da, eta, horrek, indarkerian ere amai dezaketen harreman desorekatuak ekar ditzake, botere-harremanetan eta desberdintasunean garatzen direnak, parekidetasuna oinarri izan beharrean. Horrenbestez, maitasun erromantikoa eta haren mitoak onartzen eta bereganatzen dituzten pertsonak aukera gehiago daukate indarkeriaren biktima izateko.

Frogatua dago maitasun-eredu hori oso barneratua dagoela oraino gizartean, eta esandako guztia gorabehera, bikote-harremanetako maitasun ideal eta desiragarri gisa saltzen da. Hori nahiko kontraesankorra da gaur egungo gizartean jarrera indibidualista, autonomo eta askeak balio nagusi eta demokratikoentzat jotzen direla kontuan hartuz gero; logikoa litzateke amodioaren iruditegia ere aldaketa horiekin bat joan dela pentsatzea, ez haatik gertatu den legez, aldaketa horiei entzungor. Baina industria kulturelek (abestiak, nobelak, telesailak, pelikulak...) ezinbesteko papera jokatzen dute zeregin horretan, eta balio-aldaketan eta gizarte-eraldaketan lagundu beharrean, horren kaltegarria den maitasun erromantikoaren eredia transmititzen jarraitzen dute belaunaldi berriei indarrez.

*Cincuenta sombras de Grey* eleberri arrakastatsua osagai horiek guztiak barnebiltzen ditu, maitasun erromantikoaren babesean eta BDSMaren aitzakiapean ezkutaturik. Hala ere, milioika ale saldu dituen *best seller* bilakatu da, irakurri nahi ez duenak pelikula ere eskuragarri duelarik. Hori oso kezkarria dela deritzot, liburuak daukan indarkeria matxista oharkabean igaro den seinalea baita, edota okerragoa dena, garrantziarik ez duen zerbait bezala. Ondo erakusten du gai horrekiko gizartearen kontzientzia sozial maila zein hutsala den, beste behin ere «emakumeen arazo» kontsideratzen direnak bigarren maila batean utziz. Gainera, idealizaturiko indarkeria-ereduan ikas ditzake jendeak maitatzeko era desiragarriak, baita ezaugarri horiek biltzen dituzten pertsonengan bilatu euren bikotekide perfektuak ere. Genero-rol tradizionalan horren txertatuak dauden pertsonaiak ekoizten jarraitu beharrean, mesedegarriagoa litzateke horiekin apurtzen duten erreferente berriak sortzea literaturan edo dena delako euskarri kulturean.

Industria kulturalen bonbardaketa gelditzea ia ezinezkoa da, eta, beraz, saihetsezina da jendarteak haiek kontsumitzen jarraitzea eta transmititzen dituzten ideia eta balioak barneratzea. Horregatik, eta berdintasunaren aldeko borrokan denok daukagun erantzukizuna ikusirik, eraginkorragoa iruditzen zait horrelako produktuen kontsumoa debekatzea baino, kritikoki aztertu ahal izateko tresnak sortzea eta eskaintzea. Hori dela-eta, funtsezkoa ikusten dut gai hauen inguruko ikerketa eta azterlanak egitea, eta etsai soil gisa ikusi beharrean, etekina atera dakiekeen produktutzat hartzea, ereduak birpentsatu nahiz eraldatzeko eta erreferente berriak sortzeko aitzakia bezala.

Sozializazioa (eta beraz, generoa) eraikuntza-prozesu soziokultural bat den heinean, zaila bada ere, alda daitekeela ondoriozta genezake. Pentsa daiteke gizon-emakumeak ez garela haurtzaroan ikasi eta barneratutako portaerak errepikatuzera kondnaturik gauden automatak, ez garela generoaren ekoizle pasibo soilak. Aitzitik, erresistentzia- eta subertsio-gune ere bilaka gaitzke. Bukatzeko, maitasun-eredua horren garrantzitsua bada indarkeria matxistaren sustatze eta mantenuan, maitasunak botere eraldatzaile bat ere izan baduela sinesten dut. Beraz, maitatzeko era alternatiboetan sakontzea eta maitatzeko era berriak sortzea funtsezko zeregina dela kontsideratzen dut harreman patriarkal heteronormatiboetara aurreratu egiteko unean. Aldaketa eta berrikuspen horiek, gure harreman intimoenei eragiten dieten heinean, mikro mailan egitekoak dira, *personalitatea politikoa da* lelopean. Hori dela-eta, etengabe galdetu beharko genieke geure buruei zer harreman mota nahi dugun, eta harreman horiek balio parekide eta feministei jarraikiz eraikitzen ari ote garen.

## Bibliografia

- Andrés, P. (2004): «Violencia contra las mujeres, violencia de género», in C. Ruiz-Jarabo eta P. Blanco (ed.), *La violencia contra las mujeres. Prevención y detección. Cómo promover desde los Servicios Sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas*, Díaz de Santos, Madril, 17-38.
- Bonino, L. (1995): «Develando los micromachismos en la vida conyugal. Una aproximación a la desactivación de las maniobras masculinas de dominio», in J. Corsi (ed.), *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y a los modelos de intervención*, Paidós, Buenos Aires, 191-208.
- , (2004): «Las microviolencias y sus efectos. Claves para su detección», in C. Ruiz-Jarabo eta P. Blanco (ed), *La violencia contra las mujeres. Prevención y detección. Cómo promover desde los Servicios Sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas*, Díaz de Santos, Madril, 83-102.
- Bonomi, A.E.; Altenburger, L.E. eta Walton, N.L. (2013): «“Double crap!” Abuse and harmed identity in *Fifty shades of Grey*», *Journal of Women’s Health*, **22**, 733-744, <<https://vpn.deusto.es/ehost/pdfviewer/DanInfo=web.a.ebscohost.com+pdfviewer?sid=7e731d7b-e638-402f-859f-ecd8de0b2b50%40sessionmgr4004&vid=1&hid=4114>> (Kontsulta: 2016-03-10).
- Bosch, E.; Ferrer, V.A. eta Alzamora, A. (2006): *El laberinto patriarcal. Reflexiones teórico-prácticas sobre la violencia contra las mujeres*, Anthropos, Bartzelona.
- Bosch, E. et al. (2007): *Del mito del amor romántico a la violencia contra las mujeres en la pareja*, <[http://www.migualdad.es/mujer/mujeres/estud\\_inves/770.pdf](http://www.migualdad.es/mujer/mujeres/estud_inves/770.pdf)> (Kontsulta: 2015-04-21).



- , (2010): «El mito romántico de los celos y su aceptación en la sociedad española actual», *Apuntes de Psicología*, **28**, 391-402, <<http://www.apuntesdepsicologia.es/index.php/revista>> (Kontsulta: 2015-04-21).
- Bosch, E.; Ferrer, V.A. eta Navarro, C. (2010): «Los mitos románticos en España», *Boletín de Psicología*, **99**, 7-31, <<http://www.uv.es/seoane/boletin/boletin.html>> (Kontsulta: 2015-04-21).
- Butler, J. (2007): *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós, Bartzelona.
- , (2009): «Performatividad, precariedad y políticas sexuales», *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, **4**, 321-336, <<http://www.aibr.org/antropologia/netesp/0903.php>> (Kontsulta: 2015-04-18).
- Cerezo, M. (2010): «El canon literario y sus efectos sobre la construcción cultural de la violencia de género: los casos de Chaucer y Shakespeare», in A. de la Concha (koord.), *El sustrato cultural de la violencia de género. Literatura, arte, cine y videojuegos*, Síntesis, Madril, 19-43.
- De Beauvoir, S. (2000): *El segundo sexo. Volumen II. La experiencia vivida*, Cátedram, Madril.
- Deza, S. (2012): «¿Por qué las mujeres permanecen en relaciones de violencia?», *Avances en Psicología*, **20**, 45- 55, <<http://www.unife.edu.pe/pub/revpsicologia.html>> (Kontsulta: 2015-04-19).
- Enguix, B. eta Núñez, F. (2015): «Género, sexualidad y feminismo en *Cincuenta sombras de Grey*», *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, **10**, 49-74, <<http://www.aibr.org/antropologia/netesp/numeros/1001/100104.pdf>> (Kontsulta: 2016-03-11).
- Espinar, E. (2007): «Las raíces socioculturales de la violencia de género», *Escuela Abierta*, **10**, 23-48, <<http://www.ceuandalucia.es/escuelaabierta/escuelaabierta.php>> (Kontsulta: 2015-04-18).
- Esteban, M.L. (2010): «Algunas ideas para una antropología del amor», in L. Abad eta J. A. Flores (ed.), *Emociones y sentimientos. La construcción social del amor*, Universidad de Castilla-La Mancha, Cuenca, 229-246.
- , (2011): *Crítica del pensamiento amoroso. Temas contemporáneos*, Bellaterra, Bartzelona.
- Fausto-Sterling, A. (1993): «The five sexes. Why male and female are not enough», *The Sciences*, 20-25, <[http://www.fd.unl.pt/docentes\\_docs/ma/TPB\\_MA\\_5937.pdf](http://www.fd.unl.pt/docentes_docs/ma/TPB_MA_5937.pdf)> (Kontsulta: 2014-04-18).
- Ferrer, V. eta Bosch, E. (2013): «Del amor romántico a la violencia de género. Para una coeducación emocional en la agenda educativa», *Profesorado. Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, **17(1)**, 105-122, <<http://www.ugr.es/~recfpro/>> (Kontsulta: 2015-04-21).
- Gálligo, F. (2009): *SOS... Mi chico me pega pero yo le quiero. Cómo ayudar a una chica joven que sufre malos tratos en su pareja*, Pirámide, Madril.
- Guardo, L. (2012): *Percepción de las relaciones de género entre adolescentes: transmisión de estereotipos y mitos de amor*, <<http://gredos.usal.es/jspui/handle/10366/118706>> (Kontsulta: 2015-04-17).
- Herrera, C. (2013): *La construcción sociocultural del amor romántico*, Fundamentos, Madril.
- , (d.g.): «El amor romántico perjudica seriamente la igualdad», *El Rincón de Haika*, 1-81, <<https://sehablearloperooamiestilo.files.wordpress.com/2013/04/elamorromanticoperjudicaseriamentelaigualdad-coralherrerragomez.pdf>> (Kontsulta: 2015-04-20).
- Illouz, E. (2014): *Erotismo de autoayuda. Cincuenta sombras de Grey y el nuevo orden romántico*, Clave Intelectual, Madril.

- Izquierdo, A. *et al.* (2013): «La violencia de género sutil en la literatura contemporánea: especial referencia a la novela “Cincuenta sombras de grey”», in A. Gallardo (koord.), *Violencia de género e igualdad. Una cuestión de derechos humanos*, Comares, Granada, 427-436.
- James, E.L. (2012): *Cincuenta sombras de Grey*, Penguin Random House, Bartzelona.
- Lagarde, M. (1996): *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*, Horas y Horas, Madril.
- López, M. (2014): «Representación de la violencia y del deseo en la novela negra en femenino», *Thélème. Revista Complutense de Estudios Franceses*, **49**, 127-139, <<http://revistas.ucm.es/index.php/THEL/article/view/40480>> (Kontsulta: 2016-03-11).
- Lucas, A. (1996): *Introducción a la sociología: para el estudio de la realidad social*, Eunsa, Iruñea.
- Millet, K. (1995): *Política sexual*, Cátedra, Madrid.
- Montero, D. eta Hernando, A. (2016): «Del príncipe azul al exitoso millonario: *Cincuenta sombras de Grey*», *Estudios Feministas*, **24**, 331-350, <<http://rabida.uhu.es/dspace/handle/10272/11674>> (Kontsulta: 2016-03-10).
- NBE (Nazio Batuen Erakundea) (1994): *Declaración sobre la eliminación de la violencia contra las mujeres*, <<http://www.uji.es/bin/organs/ui/legisla/int/7-r48-104.pdf>> (Kontsulta: 2015-04-10).
- Nogueiras, B. (2004): «La violencia en la pareja», in C. Ruiz-Jarabo eta P. Blanco (ed.), *La violencia contra las mujeres. Prevención y detección. Cómo promover desde los Servicios Sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas*, Díaz de Santos, Madril, 39-55.
- Pastor, A.A. (2009-2010): «Roles y diferenciación de género en la literatura infantil», *Revista Borradores*, **10-11**, 1-11, <<http://www.unrc.edu.ar/publicar/borradores/Vol10-11/pdf/Roles%20y%20Diferenciacion%20de%20genero%20en%20la%20literatura%20infantil.pdf>> (Kontsulta: 2016-03-11).
- Peña, E.M. *et al.* (2011): «Proyecto de investigación sobre sexismo y violencia de género en la juventud andaluza. Resultados y recomendaciones», *Instituto Andaluz de la Mujer*, <[http://www.uca.es/recursos/doc/unidad\\_igualdad/47737780\\_1122011112236.pdf](http://www.uca.es/recursos/doc/unidad_igualdad/47737780_1122011112236.pdf)> (Kontsulta: 2015-04-21).
- Pujol, C. eta Esquierol, M. (2014): «Sujetos sexuales, objetos comerciales: la sexualidad femenina como *lifestyle* en *Cincuenta Sombras de Grey*», *Anàlisi. Quaderns de Comunicació i Cultura*, **50**, 55-67, <[https://ddd.uab.cat/pub/analisi/analisi\\_a2014m5n50/analisi\\_a2014m5n50p55.pdf](https://ddd.uab.cat/pub/analisi/analisi_a2014m5n50/analisi_a2014m5n50p55.pdf)> (Kontsulta: 2016-03-10).
- Riviere, J. (2009): *Los hombres, el amor y la pareja*, <<http://www.porlosbuenostratos.org/documentos/>> (Kontsulta: 2015-04-10).
- Santander, P. (2011): «Por qué y cómo hacer análisis de discurso», *Cinta Moebio*, **41**, 207-224, <<http://www.scielo.cl/pdf/cmoebio/n41/art06.pdf>> Kontsulta: (2015-04-23).
- Servén, C. (2012): «Novela de intriga y violencia de género», *InterseXiones*, **3**, 113-124, <<http://intersecciones.es/Numero3/07art.7.pdf>> (Kontsulta: 2016-03-11).